# HILEKO KOIUNTURA

BilbaoBehatokia

**Bilboko laburpen sozioekonomikoa** — **2025EKO ABENDUA**

## TITULARTASUNAK

- Azaroan erregistratutako biztanleria langabeak -% 1,3 egin du behera, eta 20.866 pertsonakoa izan da.
- Afiliatutako biztanleriak gora egin du; urrian baino % 1,5 gehiago da orain. Guztira 202.586 afiliatu daude.
- Bilboko enpresetan 11.716 kontratu sinatu dira, hau da, 2024ko azaroan baino -% 1,8 gutxiago.
- Bilboko turismo-jarduerak gora egiten jarraitzen du. Hotelek eta turismo-apartamentuek 99.445 sarrera eta 197.752 gaualdi erregistratu dituzte guztira, urte arteko % 6,3ko eta % 6,6ko igoerekin, hurrenez hurren.
- Bizkaiko BPGd-a % 2,5 igo da urte artean eta % 0,7 igo da hiruhilekoen artean, 2025eko hirugarren hiruhilekoan.
- Bilboko aireportuak historiako azarorik onena erregistratu du: 526.994 bidaiari, 2024ko azaroan baino 44.775 gehiago.
- Bilboko Portuan 2,7 milioi tonako trafikoa erregistratu da azaroan, aurreko urteko hilabete berean baino % 3,8 gehiago.

## ADIERAZLEAK

| | Azken datua | Δ Urte artean (%) *aurreko aldia | Azken data datua |
|---|---|---|---|
| **Lan-merkatua** | | | |
| **Afiliatutako biztanleak** (kop.) | **202.586** | 1,5* | Aza. |
| **Erregistratutako langabeak** (kop.) | **20.866** | –1,3* | Aza. |
| **Erregistratutako kontratuak** | **11.716** | -1,8 | Aza. |
| **Merkataritza** | | | |
| **Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea** (2021. urtea = 100eko oinarria) | **103,4** | 0,1 | Urr. |
| **Turismoa (hotelak eta apartamentuak)** | | | |
| **Bidaiarien sarrera** (kop.) | **99.445** | 6,3 | Aza. |
| **Ostatu-gauak** (kop.) | **197.752** | 6,6 | Aza. |
| **Batez besteko egonaldia** (egunetan) | **1,99** | 0,5 | Aza. |
| **Ekonomia eta enpresak** | | | |
| **Etxebizitza libre berria** (€/m$^2$) | **5.150,6** | 8,4* | 3T25 |
| **Bigarren eskuko etxebizitza** (€/m$^2$) | **3.340,6** | –2,9* | 3T25 |
| **Bizkaiko BPGd** (milioi €) (2022. urtea=oinarria 100) | **108,5** | 2,5 | 3T25 |
| **Garraioa** | | | |
| **Bidaiarien aireko garraioa** (kop.) | **526.994** | 9,3 | Aza. |
| **Salgaien itsasoko garraioa** (milioi tona.) | **2,7** | -3,8 | Aza. |

**DATUA**

% **2,5** urte artekoa

Bizkaiko BPGd-a

[2025eko abenduaren 24ko datuak]

# LAN MERKATUA

## Erregistratutako langabezia

Azaroan 276 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko -% 1,3 gutxiago, eta 20.866 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean, –% 0,8 eta –% 1,7, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 68 gizon langabe eta 208 emakumezko langabe gutxiago zeuden.

Langabeziak behera egin du adin-talde guztietan. 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean jaitsi da gehien ehunekoa (-% 2,1 eta 41 langabe gutxiago). 25-44 urteko segmentuan -% 1,9 murriztu da (-143), eta 45 urte eta gehiagokoan 92 langabe gutxiago daude (-% 0,8).

Sektoreka, Zerbitzuek 259 langabe gutxiago dituzte (-% 1,7), Industriak 38 (-% 2,8), Lehen Sektoreak 1 (-% 0,3) eta lehen enpleguaren bila dabiltzanek 6 (-% 0,2) Eraikuntzan bakarrik egin du gora langabezia erregistratuak (+% 2,3 eta +28 langabe).

**Erregistratutako langabeak**

Hilabete artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **azaroa** | **20.866 pertsona** |
| | **% 1,3 ▼** |
| Emakumezkoak | % 1,7 ▼ |
| Gizonak | % 0,8 ▼ |

**Benchmarking-a.** Espainiako bost hiriburu handienen taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak –% 1,1 egin du behera aurreko hilaren aldean. Sevillak izan du taldeko beherakadarik handiena: -% 1,7.

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabeziak ere behera egin du (-% 0,8). Iruñean soilik egin du gora langabeziak (+% 0,2) Gasteizen (-% 1,8) eta Donostian (-% 0,4) egin du behera.

Langabeziak behera egin du EAEn (-% 1,) eta hiru lurraldeetan: Bizkaian -% 1,1, Araban -% 1,6 eta Gipuzkoan -% 0,6.

**Benchmarkinga**

Hilabete artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **Bilbo** | % 1,3 ▼ |
| **G-5** | % 1,1 ▼ |
| **G-3** | % 0,8 ▼ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Afiliatuak

Bilboko enpresetan 202.586 afiliatu zeuden azaroaren amaieran, hau da, % 1,5eko igoera izan zen eta 2.996 enplegu gehitu ziren urriarekin alderatuta.

Araubide Orokorrak 2.849 enplegu irabazi ditu aurreko hilaren aldean; Langile Autonomoen Erregimen Bereziak ere 102 afiliazio gehiago izan ditu eta Etxeko Langileen Erregimen Bereziak 42. Araubide bereziek (Nekazaritzakoa eta Itsasokoa) ere gora egin dute, 3 lanpostu gehiago daude.

**Populazio afiliatua,** araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **azaroa** | **202.586 pertsona** |
| | **% 1,5 ▲** |
| Araubide orokorra | % 1,7 ▲ |
| Autonomoak | % 0,5 ▲ |
| Etxeko langileak | % 0,7 ▲ |
| Bestelakoak | % 0,4 ▲ |

Sektoreka, Zerbitzuek 2.785 afiliatu (% 1,5), Industriak 139 (% 1,7) eta Eraikuntzak 73 (% 0,8); Lehen Sektoreak bakarrik galdu du afiliatu 1 (-% 0,4).

Zerbitzuetan, datu absolutuetan, aipagarriak dira Administrazio-jarduerak, Hezkuntza, Merkataritza eta Zerbitzuak adarretako igoerak, bai eta Informazioa eta komunikazioak adarretakoak ere (731, 427, 400, 185 eta 162, hurrenez hurren). Hilabete honetan Ostatuen adarraren beherakada baino ez da izan (-37 afiliatu).

**Urte arteko terminoan** enpleguak % 1,7ko hazkundea izan du, hau da, 3.402 afiliatu gehiago.

Araubide Orokorrak % 2,1 egin du gora, eta bereziek —Nekazaritza eta Itsasoa—, berriz, % 1,0. Behera egin dute Etxekoak (-% 1,2) eta Autonomoenak (-% 0,4).

Sektoreka, Zerbitzuetan 3.986 afiliatu gehiago daude (% 2,2), Eraikuntzan 138 gehiago (% 1,5) eta Lehen Sektorean 3 gehiago (% 1,3). Industriak 725 enplegu galdu ditu
(-% 7,9).

Zerbitzuetan bereziki nabarmentzekoak dira adar hauetan izandako igoera absolutuak: Hezkuntza, Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, Garraioa eta biltegiratzea, eta Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (867, 728, 607 eta 423 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).. Merkataritzak 226 enplegu galdu ditu.

**Populazio afiliatua,** araubideen arabera
Hilabete artekoa Δ

| | | |
|---|---|---|
| **Azaroa** | **202.586 pertsona** | |
| | **% 1,5** | ▲ |
| Araubide orokorra | % 1,5 | ▲ |
| Autonomoak | % 0,8 | ▲ |
| Etxeko Sistema Berezia | % 1,7 | ▲ |
| Beste batzuk | % 0,4 | ▼ |

**Benchmarking-a.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 1,8ko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Joera positiboa izan da taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du igoerarik handiena (% 2,0); Bartzelonak eta Sevillak, berriz, igoerarik neurritsuena (% 1,5 bi kasuetan).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 1,7 igo da. % 1,7 egin du gora Gasteizen eta Donostian. Iruñean igoera handiagoa da, % 1,8.

EAE osoan, afiliatuak % 1,1 igo dira hil artean. Arabak % 1,5 egin du gora, Bizkaiak % 1,2 eta Gipuzkoak % 0,9.

**Benchmarkinga**
Hilabete artekoa Δ

| | | |
|---|---|---|
| **Bilbo** | % 1,3 | ▼ |
| **G-5** | % 1,1 | ▼ |
| **G-3** | % 0,8 | ▼ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Erregistratutako kontratuak

Azaroan 11.716 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino -% 1,8 eta 220 kontratu gutxiago. Urtetik urtera behera egin dute gizonei eta emakumeei egindako kontratuek: 123 eta 97 gutxiago, hurrenez hurren.

Adina kontuan hartuta, kontratuek gazteenen artean soilik egin dute gora, % 0,7 (21 gehiago). 25 eta 44 urte bitartekoen taldean -% 3,0 murriztu da, hau da, 174 kontratu gutxiago; eta 45 urte eta gehiagokoen artean, -% 2,0 (67 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 47,8 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.600 kontratu), % 24,6 berriz, 16 eta 24 urte artekoei (2.884) eta gainerako % 27,6, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.232).

Sektoreka, Industrian (% 14,3 eta 75 gehiago) eta Eraikuntzan (% 5,8 eta 18 gehiago) igo dira kontratuak. Zerbitzuen sektorean urte batetik bestera 306 kontratu galdu dira (-% 2,8) eta Lehen Sektorean % 50,0 eta 7 gutxiago.

Zerbitzuetan, beherakadarik handienak Informazioan eta komunikazioetan (505 gutxiago), Osasun-jardueretan eta gizarte-zerbitzuetan (228 gutxiago) eta Garraioan eta biltegiratzean (86 gutxiago) izan dira. Ostalaritza, Jarduera artistikoak eta Etxeko langileak dira enplegatzaile gisa urte arteko galera handienak izan dituzten adarrak (+156, +146 eta +132, hurrenez hurren).

Azaroan, aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 74,6 izan dira. Mugagabeek % 5,2 egin dute gora urtetik urtera. 8.720 pertsona kontratatu dira,%- 0,3 gutxiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,34 kontratu.

**Erregistratutako kontratuak**
Urte artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **Azaroa** | **11.716 pertsona** |
| | % 1,8 ▼ |
| Emakumezkoak | % 1,5 ▼ |
| Gizonak | % 2,3 ▼ |
| Lehenengo Sektorea | % 50,0 ▼ |
| Industria | % 14,3 ▲ |
| Eraikuntza | % 5,8 ▲ |
| Zerbitzuak | % 2,8 ▼ |
| Kontratatutako pertsonak | % 0,3 ▼ |

# MERKATARITZA

## Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Dokumentua egin den datan, azalera handien salmentari eta elikadura-kateei buruzko azaroko datuak ez dira argitaratu.

**Saltoki handiak** Bizkaia
Urte artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **Urria** | 103,4 |
| **Salmenten indizea** | % 0,1 ▲ |
| - Elikadura | % 0,0 = |
| - Gainerako produktuak | % 0,1 ▲ |
| **Lanean ari diren langileak** | % 0,9 ▲ |

# TURISMOA

**Oro har, enpresa-establezimenduetan, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta,** azaroan 99.445 sarrera eta 197.752 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera % 6,3 eta % 6,6, kasu bakoitzean).

**Urtean zehar, urtarriletik azarora**, 2.543.364 gau-egonaldi eta 1.301.554 sarrera erregistratu dira, hau da, %11,1eko igoera gau-egonaldietan eta % 13,1ekoa sarreretan, 2024aren aldean.

Bilboko hotel-establezimenduetan 171.784 ostatu-gau erregistratu dira azaroan, hau da, % 3,1eko hazkundea egon da urtetik urtera (5.135 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak ere gora egin du,% 5,4. Estatuko bidaiarien presentziak gora egin du urte artean (% 1,2), eta urrian hirira egindako bisitarien % 60 izan dira. Gainerako % 40 atzerritarrak dira, aurreko urteko hilabete berean Bilbon ostatu hartu zutenak baino % 12,2 gehiago.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako estatuko bidaiari guztien artean, Madrilgo Erkidegokoak dira nagusi (% 22,2), ondoren, EAEkoak (% 15,7), Kataluniakoak (% 11,5) eta Andaluziakoak (% 6,6). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (11,7%), AEBak (8,8%), Erresuma Batua (8,2%), Italia (8,1%) eta Alemania (% 6,9).

Batez besteko egonaldia 1,91 egunekoa izan da, duela urtebete baino zertxobait txikiagoa (1,95).

Hotel-establezimenduek emandako errentagarritasun-datuak kontuan hartuta, tarifak eta gela eskuragarriko batez besteko sarrerak gora egin dute, eta 108,0 eta 75,3 eurokoak dira, hurrenez hurren.

**Apartamentu turistikoen establezimenduek** 9.353 sarrera erregistratu dituzte guztira urrian, hau da, % 15,9 gehiago eta 25.968 gaualdi gehiago, eta 2024ko azaroan baino % 38,3 gehiago.

**Benchmarking-a.** Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, % 1,0 hazi da urtetik urtera. Ostatu-gauak Donostian eta Gipuzkoan bakarrik jaitsi dira, -% 5,4 eta -% 4,4, hurrenez hurren. Urte batetik bestera, hobera egin dute Gasteizen (% 4,2), Iruñean (% 15,2), Araban (% 4,2), Bizkaian (% 3,5) eta EAE osoan (% 0,3).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 5,4ko gorakada izan dute. Zaragozan izan ezik (-% 9,5), ostatu-gauek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Valentzian izan da gorakadarik handiena (% 23,5).

## Establezimenduak (hotelak eta apartamentuak)

Urte artekoa Δ

**Azaroa**

| | |
|---|---|
| **Ostatu-gauak, guztizkoak** | 197.752 ostatu-gau<br>% 6,6 ▲ |
| **Sarrerak, guztira** | 99.445 sarrerak<br>% 6,3 ▲ |
| **Egonaldia, batez beste** | 1,99 ostatu-gau/bidaiariko |

## Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

**Azaroa**

| | |
|---|---|
| **Ostatu-gauak** | 171.784 ostatu-gauak<br>% 3,1 ▲ |
| 3 izar eta gehiagoko hotelak | % 3,0 ▲ |
| Gainerako hotelak eta pentsioak | % 3,2 ▲ |
| **Bidaiarien sarrerak** | 90.092 sarrerak<br>% 5,4 ▲ |
| Espainiakoak | % 1,2 ▲ |
| Atzerritarrak | % 12,2 ▲ |
| **Egonaldia, batez beste** | 1,91 ostatu-gau/bidaiariko |

## Hotelen errentagarritasunaren adierazleak

Urte artekoa Δ

| | |
|---|---|
| Eguneko batez besteko tarifa logelako (€) | % 4,4 ▲ |
| Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€) | % 3,9 ▲ |

## Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

**Azaroa**

| | |
|---|---|
| **Ostatu-gauak** | 25.968 ostatu-gauak<br>% 38,3 ▲ |
| **Bidaiarien sarrerak** | 9.353 sarrera<br>% 15,9 ▲ |
| **Egonaldia, batez beste** | 2,78 ostatu-gau/bidaiariko |

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena.
(Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

## Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **Bilbo** | % 3,1 ▲ |
| **G-5** | % 5,4 ▲ |
| **G-3** | % 1,0 ▲ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

# EKONOMIA

## Bizkaiko BPGd-a

Bizkaiko barne produktu gordinak urte arteko % 2,5eko gorakada erregistratu du 2025eko hirugarren hiruhilekoan. Euskal ekonomia osoari dagokionez, igoera % 2,3koa da.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,7 igo da eta, ondorioz, aurreko hiruhilekoan izandakoa baino handiagoa izan da (2025eko 2. hiruhilekoan +% 0,5). Bestalde, EAEren hazkundea % 0,6koa izan da.

Euskadi osorako, lehen sektorea kenduta (-% 0,9), oro har, jarduera sektoreek hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan dute: industria % 0,4 hazi da, eraikuntza % 2,3 eta zerbitzuak % 0,6.

**Barne Produktu Gordina** Bizkaia

| **III. hiruhilekoa** | |
|---|---|
| Urte artekoa Δ | % 2,5 ▲ |
| Hiruhileko arteko Δ | % 0,7 ▲ |
| **Hiru hilez behingo BPGd (milioi €)** | 13.202,0 |

## Etxebizitza

**Salerosketa:** Bilboko etxebizitza berri libreen transakzioen metro karratuko batez besteko prezioa 5.150,6 eurokoa da, Eusko Jaurlaritzak urteko hirugarren hiruhilekoari lotuta egin duen Etxebizitzen Salerosketaren Estatistikaren arabera. Horrek aurreko hiruhilekoan baino % 8,4 garestiagoa izatea dakar, eta urte arteko terminoetan % 26,9ko igoera izan du.

Bigarren eskuko etxebizitzen salerosketen metro karratuko batez besteko prezioa jaitsi egin da, kasu honetan - % 2,9 bigarren hiruhilekoaren aldean, 3.340,6 eurotan geratuz. Urte arteko aldakuntza positiboa da, % 11,2koa.

Bilboko etxebizitza libreen salerosketa-transakzioen batez besteko prezio osoa, urteko hirugarren hiruhilekoan, 391.615 euro izan da, eta etxebizitza erabiliena, 291.213 euro.

**Alokairua:** Argitaratutako azken datuen arabera, Bilboko etxebizitzen alokairu libreko kontratuen batez besteko hileko errenta 934,7 eurokoa da 2025eko lehen hiruhilekoan, % 0,1 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 7,0 hazi da urte arteko konparazioan.

**Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa ($m^2$)**

| | |
|---|---|
| **III. hiruhilekoa** | 5.150,6 €/$m^2$ |
| Hiruhileko arteko Δ | % 8,4 ▲ |
| Urte artekoa Δ | % 26,9 ▲ |

**Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa ($m^2$)**

| | |
|---|---|
| **III. hiruhilekoa** | 3.340,6 €/$m^2$ |
| Hiruhileko arteko Δ | % 2,9 ▼ |
| Urte artekoa Δ | % 11,2 ▲ |

**Etxebizitzen alokairuaren batez besteko prezioa (€/hilabete)**

| | |
|---|---|
| **I. hiruhilekoa** | 934,7 €/hilabetea |
| Hiruhileko arteko Δ | % 0,1 ▲ |
| Urte artekoa Δ | % 7,0 ▲ |

# GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

## Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 526.994 bidaiari izan ditu azaroan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 9,3 eta 44.775 bidaiari gehiago. Emaitza horiekin, gainera, azaroko daturik onena lortu du, martxan jarri zenetik.

Merkataritza-operazioetan, igo egin da hegaldi nazionaletako bidaiarien kopurua (12.626 bidaiari gehiago, % 4,4), eta nazioartekoetakoa (31.734 bidaiari gehiago, % 16,3).

Hilean operatutako hegaldiek gora egin dute, eta, iritsieren eta irteeren artean, 3.987ra iritsi dira. Eta jaitsi egin dira, aldiz, haietan garraiatutako salgaiak (-% 2,9).

**Urtarriletik azarora** 6.542.661 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 4,1 gehiago, hau da, 258.096 bidaiari gehiago.

**Aireko garraioa**
Urte artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **Azaroa** | 526.994 bidaiari |
| | % 9,3 ▲ |
| Espainiakoak | % 4,4 ▲ |
| Nazioartekoak | % 16,3 ▲ |
| **Salgaiak** (kg) | % 2,9 ▼ |
| **Hegaldiak** | % 0,9 ▲ |

**Benchmarking-a.** Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 6,2ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Zaragozan izan ezik (-% 1,2), taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Valentzia da altuena (% 25,4) eta Madril baxuena (% 3,9).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 6,6 handitu da, urtetik urtera. Gasteizek % 35,8 egin du gora, Iruñeak % 11,4 eta Donostiak -% 9,5 egin du atzera.

**Benchmarkinga**
Urte artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **Bilbo** | % 9,3 ▲ |
| **G-5** | % 6,2 ▲ |
| **G-3** | % 6,6 ▲ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,7 milioi tonako trafikoa izan zuen azaroan, hau da, -% 3,8 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan azaroan kudeatzen diren salgaien % 66,9 izan da, eta urte arteko % 1,2ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 14,5 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrena -% 10,1 jaitsi da.
Azaroan ez da itsas-bidaietako jarduerarik erregistratu.

**Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik azarora** 29,3 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino -% 8,8 gutxiago.

**Itsasoko garraioa** Azaroa
Urte artekoa Δ

| | |
|---|---|
| **Portuko trafikoa** | 2,7 milioi tona. |
| | % 3,8 ▼ |
| **Bidaiarien garraioa** | 4.448 bidaiari |
| | % 43,0 ▼ |
| **Gurutzaldiko bidaiariak (kop.)** | 0 |

# ADIERAZLEEN KOADROA

| | Azken datua Δ | Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia | Azken datuaren data |
|---|---|---|---|
| **Lan-merkatua** | | | |
| Erregistratutako langabeak (kop.) | **20.866** | -1,3* | 2025eko aza. |
| Afiliatutako biztanleak (kop.)** | **202.586** | 1,5* | 2025eko aza. |
| Erregistratutako kontratuak (kop.)** | **11.716** | -1,8 | 2025ko urria |
| Biztanleria aktiboa (milaka) | **175,8** | -7,9* | 2025eko III. HH |
| Biztanleria okupatua (milaka) | **164,6** | -7,5* | 2025eko III. HH |
| Biztanleria langabetua (milaka) | **11,2** | -13,2* | 2025eko III. HH |
| BAIko langabezia-tasa (%) | **6,36** | -0,39 pp.* | 2025eko III. HH |
| **Merkataritza** | | | |
| Kontsumo-prezioen indizea (KPI)*** | **120,4** | 0,3* | 2025eko aza. |
| Afiliatuak** | **20.497** | 2,0* | 2025eko aza. |
| Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)*** | **113,5** | 3,7 | 2025eko III. HH |
| Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak | **103,4** | 0,1 | 2025ko urria |
| **Turismoa** | | | |
| **Hotel establezimenduak** | | | |
| Bidaiarien sarrerak | **90.092** | 5,4 | 2025eko aza. |
| Ostatu-gauak | **171.784** | 3,1 | 2025eko aza. |
| Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaiariak) | **1,91** | -2,05 | 2025eko aza. |
| Okupazio maila (%) | **54,5** | 0,1 p.p. | 2025eko aza. |
| Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€) | **75,3** | 3,9 | 2025eko aza. |
| **Apartamentu turistikoak** | | | |
| Bidaiarien sarrerak | **9.353** | 15,9 | 2025eko aza. |
| Ostatu-gauak | **25.968** | 38,3 | 2025eko aza. |
| Batez besteko egonaldia apartamentuetan (ostatu-gauak/bidaiariak) | **2,78** | 19,3 | 2025eko aza. |
| **Ekonomia eta enpresak** | | | |
| Bizkaiko BPGd-a | **108,5** | 0,7* | 2025eko III. HH |
| Industria-produkzioa (indizea)** | **115,2** | 6,7 | 2025eko urria |
| Merkataritza-sozietate berriak | **692** | 6,1 | 2025eko urtarriletik irailera arte |
| Zerbitzuen salmentak (indizea)*** | **122,3** | 3,6 | 2025eko III. HH |
| Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa ($m^2$) | **5.150,6** | 8,4* | 2025eko III. HH |
| Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa ($m^2$) | **3.340,6** | –2,9* | 2025eko III. HH |
| Etxebizitzen alokairuaren prezioa (€/hilabete) | **934,7** | 0,1* | 2025eko I. HH |
| **Garraioa** | | | |
| Bidaiarien aireko garraioa (kop.) | **526.994** | 9,3 | 2025eko aza. |
| Hegaldiak | **3.987** | 0,9 | 2025eko aza. |
| Salgaien itsas garraioa (milioi tona.) | **2,7** | -3,8 | 2025eko aza. |

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaiari dagokiona.
Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

# GRAFIKOAK

## Erregistratutako langabezia




## Afiliatuak




## Hoteletako ostatu-gauak (kop.)




## Bizkaiko BPGd-a




## Aireportuko bidaiariak




## Portuko trafikoa

